

Lerroak tinkatzen

RAMON LABAIEN



AMAITU

zaizkigu Sebastian bezpera eta egunaren bestak. Alaitasun garbi izan ditugu aurten, bihoitzak berotzen dituzten horietakoak. Entzun diren kirrikak, ardoaren fruitu izan ditugu, agindua den bezala, eta ez politikak sortzen dituenak, bere alorretatik ateratzen denean. Ikusi omen da hori bai, Aznar jauna, xagu gisa, Kristinaren xoko batean. Ikusia eta deskutsu. Bihurtua zen Eboren hegoaldera, guk jakin bainan lehen, hunat zela etortia.

Bakea berriro Donostiako kaleetan. Eta ixila Euskal Herria. Psicharik zioen bezala, gizonari etortzen zaien zeru-apur den ixila. Euskaldun jendearentzat gogotxa garai dea. Denok dugulako usnaten gauzak doazela aldatzen eta bizkor... Jakin gabe noraino eta norantz... Espainian batetik, Espainiako eskubiak eskatzen dituen hauteskunde arretatu horiek, Estatuaren kontrolan, alderdi aldatze baizik izanen diren edo Espainiako Konstituzio horren hankaz-goratzete... Etengabe azaltzen ari zaizkiren itxiluetaz profitatuz. Nolabait, aspalditik sumatzen den horietako zartako 'bigun' bat, Estatuto bidez aitortu zaizkigun eskubiak, zalan-tzan jarriko litzutenak.

Aldaketa giroa ere Euskal Herrian. Alli jauna eta bere txapela, Nafarroan Nafarroa berpiztu dedin saiatzen. Orain ehun urte Bizkaian sortu zen abertzaleatasunaren eta Nafarroan ulertzen denaren arteko elgartaratzete baten hasiera. Nabaritze bat ere, Eusko Alderdiaren, datorrenari fronte egietako, leerroak tinkatzeko garaia dela. Indarkeriak utziz, indartsu izateko. Ikus dezagun, Ajouriaenekoa, askatasun mahai bihurtuta, Eusko Nazioaren seme jator guztiak dituela bazkide.

Realpolitik

TXILLARDEGI



GURE jendeak berak ez du sinesten. Txetxeniarrak oso herri txikia osatzen dute: 'Txetxenia-Inguxetia' Errepublikak ofizialak 19.000 kilometro karratu ditu: Euskal Herriaren pare.

Errepublikak 'autonomo' horretan bi herri anaia bizi dira: txetxeniarrak, gehiengoak, eskualdearen Ekialdean, 756.000 lagun 1979an; eta inguxiarrak, gutxiengoak, Mendebaldean, 186.000 lagun. Milioi bat eskas.

Txetxeniarrak eta inguxiarrak arazorik gabe ulertzen dute elkar; eta herri bakar baten bi adar direla esan daiteke. Koldo Mitxelena 'La Pléiade-rentzat' prestatu zuen lan ezagunean (1973) elkarrekin sailkatu zituen Txetxeniarrak, Inguxiarrak eta Batsiarrak (oso gutxi azken hauek); hiruek 'CNC' multzoa osatzen dutela esanez: 'Caucasique Centre-Nord'. Hizkuntza ez-indoeuroparra, noski.

Stalinek Siberiara deportatu zituen zazpi herri-martirietako bat izan ziren Txetxeniarrak. Herri osoa, bai, milioi erdi bat orduan, Kazakstan-era, eta kitto.

Txetxeniarrak ez dira erusiarrak, eta musulmanak dira erlijioz. Errusiar okupazioa karlisten garaiko da, hain zuzen, Txetxeniako.

Petrolioa bertan agertzean, sekulako in-migrazioa jasan du Txetxeniak. 460.000 errusiar bertaratu. Inbasioa. Orain sarraski militarra, genozidio hastapena. Bapoi!

Zer axola munduari, 'demokrati' eta 'pogre' delakoei? Irakurleak ongi daki.

Nor mintzo da gaur armeniarren genozidioaz? Haiek ere Kaukasoko herria ziren. Baina 1915a urrun gelditu zaigu. 'Bakea'...

ABC

Buru biak

Antonio Machadok dio Espainian hamar burutik batek pentsatu egiten duela eta bederatzik oldartu egiten direla, eta beharbada Bellochek buru bat Ministerio batean pentsatzeko du pausatuko, eta beste buru bat bestean oldartzeko.

Bellochen gaitasun horrek, aldi berean pentsatu eta oldartzeko, berehala jarri zuen dofinez-tzarako lehen leerroan. Ezin muzin egin gorabideari, eta zenbait Felipe Gonzalezen ondorengo ezinbestekotzat jo zuten. Felipe-ren ondorengo bat bilatu behar bazen, hantxe zegoen Belloch.

HEMEROTEKA



— Uste dut modu lotsagabeen manipulatzen ari zaizkigula. — ...txikatzen esan nahiko duzu. MANU / DEIA

buru biko gizona — epailearena eta goardiarena —, eta bokazio biko — magistratura eta politika —. Baina Belloch segituan kontradikzio bizidun eta nabaria

bilakatu zen. Demokraziarako epaile izatek GAL tapatzeko ministro bilakatu zen, eta hala besarkatu behar du Perez Mariño Kongresuko Justizia Batzordean

nola Rodolfo Martin Villa Club Siglo XXI-n. Ez die batzuei ordaintzen baina ezta besteak jotzen ere.

JAIME CAMPANY

ZUZENDARIARI

Idazkari lanpostua

Lesakako Udalak atera berria du idazkari lanposturako deialdia. Horren arabera, lanpostua eskuratzen duen langilea eralduna edo euskaldun alfabetatu gabea izan daiteke, euskararen frogaz ez baita eliminatua.

Deialdiak, legeak euskararen frogetarako eskatzen duen gutxienezko % 10 betetzen badu ere, lege berak herritarrei administrazio-erikiko harremanak euskaraz edukitzeko aitortzen dien eskubidea beteko denik ez du ziurtatzen.

Lesaka herri euskalduna da, 1991ko erroldak datuek diotenez, lesakarren % 80,1a euskalduna da, % 10,5a ia euskalduna da eta % 9,4a bakarrik da eralduna. Beraz, portzentzia hauei begira bertako udal langileek euskaraz nahitaz jakin beharko lukete. Ere gehiago, lanpostu baterako deialdia egiten denean euskaraz derrigorrezko baldintza izatea bidezko litzateke.

Lesakako Udala, Bortziritako Euskara Mankomunitadako partaide da sortu zenetik, hau da, 1989 urteaz geroztik. Mankomunitade hau sortzearen arrazoi eta helburua Bortziritan euskaraz normalizatzea izan zen. Horretarako, udal administrazioan ere euskararen presentzia ziurtatzen. 1992an Mankomunitadeak Bortziritako Udalei beren plantiletan euskaraz derrigorrezko baldintza gisa sartzeko proposamena egin zien. Bera, Etxalar, Arantza eta Igantzeko Udalek proposamen hau aztertu ondoren, akordioa hartu zuten. Beraz, gaur egun akordio hori hartu gabe gelditu den bakarra Lesakako Udala da.

Horregatik, 1993an Lesakako Udal albintze lanposturako deialdia egin zuenean ere ez zuten euskaraz derrigorrezko baldintza gisa

jarri, oraingo honetan gertatu den modura.

Bertzalde, zalantzarik gabe idazkariaren lanpostua udal txikitian ardatza izaten da. Lesakako Udalean gainerako langileak euskaldunak dira, euren artean euskaraz mintzo dira eta euskaraz funtzionatzeko prestatuak daude.

Jakina da idazkari lanpostua eskuratzen duen langilea eralduna edo euskaldun alfabetatu gabea baldin bada euskaraz ikasteko aukera izanen duela, Nafar Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak gastu guztiak bere gain hartzen dituelarik. Halere, ikastaro hauen kostoa hagitz altua da (kilometriaren, ordezkapenen eta ikastaroen beraren kostoa kontuan harturik). Gainera, egoera hori deialdi egoki baten bidez ekidin zitekeenez, idazkari eralduna edo alfabetatu gabea suertatuz gero ikastaroen parte hartzea diru publiko modu desegokian erabiltzea litzateke.

Beraz, laburbilduz, deialdi honek ekartzen ahal dituen ondorioak, hau da, lanpostua eskuratzen duen langilea eralduna edo euskaldun alfabetatu gabea izatea. Lesakan eta, oro har Bortziritan, euskaraz normalizatzeke egiten ari garen bidean oztipo larri iruditzen zaigu.

JUAN MIGUEL ALMANDOZ
(Bortziritako Euskara Mankomunitadeko lehendakaria)
Arantza (Nafarroa)

Ikasle mugimendua 6 urte borrokan

1988. urtean, Euskal Herriko unibertsitate eta ikastetxeetan giro abertzaleko ikasleak beren zentruetan dituzten kezak eta batez ere

nazional mailan haibat ikasle aldarrikapen bateratuen ondorioz Ikasle Abertzaleak jaio zen. Horren ondorioz ere, Oretaldeko ikastetxeetako ikasleak nazional mailako aldarrikapenekin bat egin genuen eta IAN antolatzen hasi ginen; gure helburu nagusia Euskal Eskola Publikoa zen eta da.

Orduanik 6 urte pasa dira, eta balarako ikastetxeetan hasierako arazo berberekin jarraitzen dugu: A ereduaren inposaketa, Euskararekiko axolagabekeria, matrikula eta garraioen garestitzea, ikastetxeetako zuzendaritzen autoritarismoa, LOGSE, lanbide heziketako praktikak, elkartasunik gabeko hezkuntza... irakusten denez, hasierako arazo berberekin jarraitzen dugu. Baina izan dira ere ikasle ongi eta kezak entzun behar izan dituztenak, gure ikastetxeetako zuzendariak, administrazio-erabiltzaileak... guzti homengatik ere esan behar da, gutzia arrosen beteriko bidea ez dela izan; hor izan genuen Ikasle Abertzaleen aurkako erasoak, non eskualdeko haibat ikasle faxisten biktima izan ziren, haibat militantek ere zuzendarien aldetik sufritu behar izan zituzten kaleratze injustifikatuak...

Urte honetan ere gure lanean jarraitzen dugu eta esan beharra dugu ere nahiko oztipo jasan behar izan ditugula, adibide gisa Ikasle nazionalerako eguna ospatzeko zenbait institutu eta ikastoletoletako zuzendarien aldetik jaso genuen debekua, hala nola kurso honetan zehar ezarri berri den LOGSE legedia. Hala nola, ahaztu ezin dituge ere urte guzti hauetan zehar estatu fantasma eta estatu espainolean zehar ditugun kaleratze presoak, edo pasa den ostrialdean Bilbao atxilotutako eta IAKO bozerramalea den Jorge Gonzalez.

ERRENTERIALDEKO
IKASLE ABERTZALEAK


GAIA JARRITA



Zaldi lasterketak

Donostiako hipodromora joan goiza pasatzeraz eta zaldien edertasunaz ondo jabetuko zera, Haiek ikusiz apusturen bat egin daiteke gainera: zaldi azkarrena zein den asmatzen azkarrena nor ote da?

INIGO AIESTARAN



Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

JDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontselluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkar: INAKI URUA

Zuzendaria: MARXELO OTAMENDI

Zuzendariordea: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Gereñtea: FERMIN LAZKANO

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egoitza nagusia: Gudarien etorbidea, 2/g / 20140 Andoain

☎ 30 02 22 / Erredakzio faxa: 30 02 55 / Publizitateko faxa: 30 07 07

Araba: San Antonio, 20-1. lekua. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrizti dorrea) / 31011 Iruñea

☎ 17 80 78 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zahalburu Enparantza, 2-1. lekua. / 48003 Bilbo

☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdia / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1/503 Posta

kutxatila, / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11